

BRANKA ETA POPA KARRATUKO ONTZIA

Kartoizko kaxari buelta eman eta itsasontzi bihurtzen zitzai-
gun, piraten belaontzi, branka eta popa karratuko ontzia. Pan-
pinatxoa lemara esertzen zen, eta haren aurrean abentura urru-
netarako ametsetan sartzen ziren gainontzeko playmobilak, ga-
rrantzitsuenak eta besteak, elbarriagoak, beso bat edo hanka
bat falta zutenak, kolorgeak, material hauskor eta margulduta-
koak. Han ageri ziren alanbre-kakoak, John Silverren mugi-
menduak antzeztuz. Ontzi karratua pasillorako bidean itsasora-
tzen zen, geletako ozeanoa zeharkatu eta sukaldeko artxipela-
gora iristeko. Eta gu, itsaso beltzaren erdian, Gulliver handiak,
munduaren gid ari, “abordajera!” oihukatuz, aho idorrean itsa-
so guztietako gatzen gustuaz. Hitz haiek zapatetan sartutako
area bezala generamatzan, handitzean benetako itsasoa zehar-
katuko genuela, lamien doinuak entzungo genituela eta por-
tuetan norbait zain izango genuela amestuz.

Lapitz hautsa zeruan. Suezta jantzi eta irten naiz. Hondartza-
ra itzuli nahi dut, itsasoaren opari bila eta hondarrean arrastoa
lagatzera, atzera. Arrigorriko balea uretatik irtetzen ikusi dut,
aire beharrean, ni bezala. Barra puntan itsasargia, marinelaren
lehorreko artizarra, keinuka.

Egunetan ikusi dut zeru beltza, hustugura. Ibaia hazita doa,
ur uherra, eta itsasoarekin borrokan dabil, aurretik galdutako
borroka dela dakien arren. Ordainetan, haserrearen zaborra
hondartzaratu du. Adar luze bat, plastikoak, poto uhartuak, an-
drakileta baten burua, lasun sabelalde puztua, kordel zatia...
Irudiak. Eta olatuen apurketa bakoitza bat-bateko galdera

bihurtzen da, erantzunik onartzen ez duen galdera. Galdera ikur bat dirudi olatuak ekarritako zapata abandonatuak.

Itsas beltzera irteten ari den itsasontziak turrunaz agurtu gaitu lehorrekoak. Norbait ikusi dut brankan, haizetan. Marinel ausartaren biziak liluratzen gaitu, arriskuak erakartzen gaitu. Baina lehorretik goraipatzen da itsasoa, lehorretik. *Ondarru II* irakurri diot estiborrean txalupari, eta, bat-batean, urrun eraman nau izenak. Nonbait izan behar du izen bera duen herriren bat, beste Ondarruren bat: Donibanetik iparraldera, Camareten alboan, Aranetik gertu, Casthewtown inguruan edo Girvaren ertzean. Eta itsas-lamien herria izan behar duela otu zait. Haizea aurpegian, hondar aho irrifartsua laster berrikusteko irrikitan doa marinela anonimoa.

Urrunean mugarik gabeko marrak banatzen ditu zerua eta itsasoa. Handik dator barbaroa, urrundik dator lamiena dirudien doinua.

Kantari olatu-bitsetan
kresala dakargu doinuetan
Ondarruko itsas-lamiak
musikaz olgetan.
Urrezko hondartzetan,
lamiak berriketan.

Hondar bustian kalatxoriek idatzitako hitzak jarraitu ditut. Hegoei eragin eta zuzen dator bat nire aldera, atzera, lasun sabelalde puztua hustutzerara. Alga hilen artean nahastu da.

Joan etorrian dabil olatua, etengabe, bizitzak bi urtaro balitu legez. Etorrera bakoitzarekin beste denbora batzuen oroipenak ekartzen dizkit: ahotsak, hitzak eta oihuak. Eta azkenean, beste egun batzuetako isilune luzeak. Bitxia da, baina bizi izatea etorkizuneko oroipenak eraikitzea da.

Hondarrera joan dira, berriro, nire begiak. Botilako deabrua askatzen duena izan nahi nuke edo Robinson Crusoearen mezua hartzen duena.

Lainoak ilundu dira arratsarekin. Arratsa ilundu da lainoekin.

Itsasaldiak hartu duen kolorea ikusita, ekaitzaren zain irten den marinela barne suren batek mantendu du brankan, haizetan. Poetak arrazoi, beti dago nekeak argitzen dituen suren bat. Gauza txikiak handi eta handiak txiki bihur ditzakegu. Minuskulak ere maiuskula bihur ditzakegu.

Haize-erauntsia, zurrunbiloa uluka barra inguruan. Eta ni hemen, leihorik gabeko gela honetan: eskumako paretean Arrigorri, ezkerrean Arta, atzean Zalduren pareta abailduak, aurrean itsasoa, goian zerua, behean hondarra, nire oinak irentsi dituen hondarra. Galizia aldetik erantsiko duela entzun dut irratian. Eskilantzarritik harantz ez da jada gauza handirik ikusten, mapatik ezabatu du eguraldiak. Arratsaldearen arbelean, klarionaren hauts lanbrotsua soilik, ezabatutako maparen arrasto bakar.

Itsaso barean denok gara itzelezko kapitain-pilotu, ur handitan beldurtzen gara, bizitzan bezala. Balea zuriek beldurtzen gaituzte gu ere. Homero-tik hasi eta Joseph Conrad-enganaino, itsasoaren kontra borroka egin du marinelak. Eta orain itsasoak zorrak eskatzen ditu. Zer kendu diogu itsasoari zorrak edukitzeko? Olatuak ekarritako zapata abandonatuak galdera ikurra itxi du.

Hondar bustian uzten joandako arrastoak ezabatuta ikusi ditut atzera begiratzean. Memoria kaxkarra atzerantz bakarrik dabilena. Amets egin eta oraindik egin ez ditugun gauzak dira aurrera laguntzen digutenak. Memoria zaharrak eta esperantza gazteak behar ditugu. Minuskulak ere maiuskula bihur ditzakegu.

Itsasoa oroimenen gunea, baina baita fantasien leku ere.

Billy Bones piratak kutxa handi bat zeukan Jim Hawkins-en gurasoen ostatuan. Jakinminak eraman zuen Jim Hawkins kutxa zabaltzera, eta bertan aurkitutako mapak eraman zuen *Altxor-raren Ubartera*. Jakinminak bultzatzen gaitu. Sentsazioei, sentimenduei edo irudimenari esker aurkitzen ditugun altxor txiki bezain handi horiek gure bizitza zabaltzen eta edertzen laguntzen digute.

Olatuaren antzera, haur-jolasek ere urtaroak dituzte. Bihar, etzi, haurren bat agertuko da maskor bila, eta txankarka ibiliko da hodei txaramelen pean. Berak askatuko du botilako deabrua edo jasoko Robinson Crusoeren mezua. Urak ekarritako makuluaz John Silverren mugimenduak antzeztuko ditu edo altxorraren uharterako mapa marraztuko hondar bustian.

Arrigorriko balea uretara itzuli da, osterara ere, zirimolak uluka barra inguruan eta kai-muturrean keinuka darrai itsasargiak. Lasun sabelalde puztua... hustua. Branka eta popa karratuko ontzia ere itzuliko da, mundua borobila omen da, eta proan ekarriko du marinela.

Joxemari Urteaga